

Saratsde, V.



SEMINARIO PASIONISTA
EUBA (Vizcaya) 'tik, 1957' gneko. ufillak 18

Pierre Lafitte Iaun agurgariari

Baiona'ra

Agur "HERRIA"ren zuzendari ta euskaltzale sutsu ta argi: Zure astekari eskuadunaren arpidedun gaitužula gogoratuko, Lafitte adiskeide, eta arpidetza Arantzazu'n elkar-ezagutu genduenetik egiña dugula ere bai, noski. Onuntzako bidea ongi ikasi digu zure aldizkari txukunak, eta txintxo etofi ere datorkigu, astero mugaz-besteko beñirik iakingařienak bere egaletan dakarzkigula. Ludi zear gertaturiko asko ortik ikasi bear askotan, emengo egunkariak ezin ezin bait esan nai aíňa beti...

Arpide-sariaren neuňia 1000 franko-liberă zala esaten zenigun uctaillaren 2'an. Ordain-saria ere biali genizun, edo obeto esan, frankotan egin aal ukaiteko Irun'go Pasiotar gure anaiekin egin nuen diru-trukea, franko-peseta-trukea, alegia, aiek muga-ondotik zuri frankoz gure zoňak ordain zezaizkizuen. Dagoneko ene mezu a ongi ta txintxo betea delakoan naukazu, ene uste onék erdia ustela ezpa'du, eta zure eskuetaraiňturen zela ere bai.

Orain bertze zerbait. Mugaz ortiko liburu batzuk eskura naiean gauzkazu. Batzuk iritxiak ditugu, Belok'ekoekin artu-emanean bait-gabiltz aspaldi ontan; bai-ňo bertze batzuk zure bidez lortu asmotan gagoz, batik-bat zuk zerauk argitara

emaniko batzuk. Zure "Grammaire Basque" edera lehendik daukat, eta orain naien ditu-danak auek dituzu (eta bakoitzetik ale bana):

- | | |
|---|-------------------------------------|
| 1) Le basque et la Literature d'expresión. | 2) Kantuz..... |
| 3) "HERRIA"ren aurtengo Almanaka..... | 4) Errepikan..... |
| 5) Eskualdunen Loretategia (1945-1800)..... | 6) Koblarien legea (art poétique..) |
| 7) <u>Eskualdunen Loretategia (1800-1930)</u> | 8) Iturralte'ren Kantikak..... |

Gaifera, efez ba'zaitzu beintzat, bertze auek ere pozik iasoko nituke:

- | | |
|--|--------------------------------------|
| 9) Koropillo-Azeri Zaharra, Paul Guilsou | 10) Airez-aire, A. Lestordes..... |
| 11) <u>Alegiak, Oxobi</u> | 12) Lau Donaduak, Larzabal..... |
| 13) <u>Atsotitz, Zuhur-itx</u> , Jean Elissalde..... | 14) Eyerazainen astoa, Larzabal..... |
| 15) <u>Ferrando</u> (amezketañatzaz), Larzabal..... | 16) Manex Axeri, Bidegain..... |
| 17) <u>Zurgin zaharfa</u> , Montzon-Olaso..... | 18) Felixiren Testamena, Idieder.... |
| 19) Jaun Kaputxin, Larzabal..... | 20) Merkatutik, Larzabal..... |

Ofezaz gain Larzabal iaun apezaren zuzenbidea ere pozik artuko nuke bialiko ba'zenida; baita oraintxe orko "Museo Basque" delakoan izandako "Euskal-liburu-Erakuseta"tzaz euskal-liburu-katalogorik argitatzentz ba'da ere, edo bestela mugaz ortiko liburuz osaturiko katalogorik arki al-ba'zeneza biotzez eskerturen nizuke, eta bear bezainbat ordaindu ere bai, bai liburu, bai katalogu. Barka ta askets ene auskeraria

Atsegiañik aundienaz iakin düt, "La Gaceta del Norte" egunkari bilbotarra dela bide, Bonaparte Efeñai eskualtzale argiaren omenez egin dituzuen iaialdietañ emendiko ta ortiko euskaltzale ta eskualtzale bikaiñenak bildu zareela, eta zuk egin solasaldiak txalo aunitz iaso dituela. Poztekoa zaiku ori, iaialdiaren audi ori, eta biltzar ori eskuararendako onuragañi izanen den itxaropen dugu bertaraiño io-terik ukam eztugunok.

Goian eska-liburuetatik begikoen eta beaíezkoenak, azpitik, maña goría dera-matenak dituzu, denak atseginañi izanik ere. Ortiko eskual-liburutegiren bateh zuzenbidea (iabeak eskualdun direla obeki) egoki letorkidake auferantzean zuri orlako bertze buruauste-biderik ez emateañen. Gaurkoz beintzat aspertu zaitut onezkero, eta amaitzera noakizu, Lafitte iauna. Agur biotzez; eta agindu euskeraren onerako nai du-zun guzia,

Sarasola'tar Koldobika Aingeru Aita pasiotafari Euba'ra

Sarasola'tar Koldobika Q.

Saratsole



SEMINARIO PASIONISTA
EUBA (VIZCAYA) 'tik eta 1958'goko ilbeltzaren 25'guz.

Pierre Lafitte Iaun agurgafiairi

BAIONA ' RA

Agur "HERRIA"ren zuzendari ta euskalzain ar-

gi: Auñen-auñenik nere eskual-agur eta Urte-Befi enik bioztikoena urte-asiera ontan, eta zure lan txalogari oñen bidez, orainarte bezain lagunza ederik eskua-ri asi-befi urte ontan ere demaiozula opaz, nere asmo-ta agertzeray noakiztu.

Joan-urtek oñiztunaren 18'gnez idatzi nizun gutunak ez du erantzunik ekañi; eta an niotzuna ber-ésatera noa. 1956-57'ko (uñilletik-uñillerak) "HERRIA"ren arpide-saria Dagonillaz-Irun'go gure anai Pasiotaren bidez biali nizula esaten nizun ("HERRIA"/8,rue Jacques Lafitte/Bayonne(B.-P.) izenez biali gaiñera), eta bidenabar liburu batzük eskatzen, zerauk idatziak batik-bat; baiño ihundik ezeren erantzun-zantzurik eztut begiztatu. Obeki erran, auréko lotazillaren 11'gnez.zu-re astekari "HERRIA"ren bigañen arpide-sari-eskea (factura) etofí zitzakidan; leen Irun'goen bidez ordainduriko 1956-57 (uñilletik-uñillera) ri zegokiona, eta bestea 1957-58'gneri (uñilletik-uñillera) dagokiona. Okeña zordunaren (Irun' goek France'ra frankotan biñi zutela esan zidaten) edo artzedunaren aldetik zegoanik nik ezin fargiturik, eta auzia bere-ärtan zuzentzeke, auréko 4'an (ur-tarril onen 4'an) Irun'era beñiro joanik, biei zegikieta (1956-67-au bigañenez,

eta 1957-58'rena leen-aldiz) zueri frankotan befiro bialtzeko 240 peseta utzi nizkien. Onezker oeskuratutik ikaneen segurki. Izen ontaz bialtzeko esan nien: P.Lafitte, Directeur de "HERRIA", 8,rue Jacques Lafitte/Bayonne/B.-P.), zuzenago joan zedin. Asmatu ahal dugu bidea? Ala ere,zuk Ustaritz'eko abadegai-Ikastetxeko maixugoan lan dagizunet gero,gutun au Ustaritz'era digortzut,lengoa Baiena'ra bializ erantzun gabetanik geratu baitzan.

Eta orain befiro lengo gutunean eskatu-liburuen izenak ipiniko,hal duzun neurian igor dezaizkiguzun. Orko liburu batzuen gose-egafiz bait-gauzkatzu aspalditik. Ona emen pozik audiennaz arturen genitukenak: (bakotzetik bana):

- | | | | |
|-----------------|---|-----|---|
| 1) | Le basque et la Literature d'expresion. | 2) | Kantuz..... |
| 3) | "HERRIA"ren aurtengo Almanaka..... | 4) | <u>Errepikan</u> |
| 5) | <u>Eskualdunen Loretegia (1945-1800)</u> | 6) | <u>Koblarien legea (art poétique)</u> |
| 7) | <u>Eskualdunen Loretegia (1800-1930)</u> | 8) | Iturrealde'ren Kantikak..... |
| 9) | Koropillo-Azeri Zaharra,Paul Guilsou..... | 10) | Airez-aire,A.Lesbordes..... |
| Bertze auek 11) | <u>Alegiak,Oxobi</u> | 12) | Lau Donaduak,Larzabal..... |
| ere oso po- 13) | <u>Atsotitz,Zuhur-itz,Jean Elissalde</u> | 14) | <u>Eyerazainen astoa,Larzabal</u> |
| zik iasoko. 15) | <u>Ferrando (amezketafatzaz),Larzabal</u> | 16) | <u>Manex Axeri,Bidegain</u> |
| 17) | Zurgin zaharra, Montzon-Olaso..... | 18) | Felixiren Testamentua,Idieder..... |
| 19) | Jaun Kaputxin,Larzabal..... | 20) | Merkatutik,Larzabal..... |

Baita eskertuko Larzabal abade antzerkigille argiaren zuzenbidea. Gainera pozik iasteko mugaz ortiko liburuz osaturiko euskal-katalogurik iñundik arrak alba'zenea. Nik bear bezala dena ordaindurenbai liburu,bai katalogu.

Goian eska-liburuehatik begikoentzako eta bearbezkoenak,azpitik maña gofría deramatenak dituzu,denak atseginingaiz izanik ere. Ortiko euskal-liburutegiren baten zuzenbidea (iabeak eskuadun direla obeki elkar-konprenitezko) egoki letorkidake aurerantzear zuri-orlako bentze buruauste-biderik ez emateafern. Onezker aspertxu zaitut,bai,gaurkoz; eta amaitzera noakizu,Lafitte iauna. Agur biotzez, eta agindu eskuararen onerako nai duzun guzia,

Sarasola'tar Koldobika Aingeru Aita pasiotara-ri Euba'ko Pasiotargai-Ikastetxe ontara.

